

Sare-neutraltasuna Europar Batasuneko Komunikazio Elektronikoetako Merkatuan: merkatua behingoz lehia askera irekitzeko baldintza

Noemí Angulo Garzaro
Amaya Angulo Garzaro
David Fernández Rojo

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.104.2016.1.08>

Aurkibidea: I. Sarrera.—II. Abiapuntua: sare-neutraltasunaren printzipioa, inoiz baino beharrezkoagoa. II.1. Merkatuaren egituraren ondoriozko itxiera: merkatuan sartzeko eta aritzeko barrerak. II.2. Neutrala den sarearen ezinbestekotasuna: merkatuan sartzeko eta aritzeko askatasuna.—III. Helburua: merkatua lehia askera irekitzea. III.1. Gaur egungo egoera: Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortzeko ahaleginak. III.2. Etorkizuna: neutrala den Telekomunikazioen Merkatu Bakar lehiakorra.—IV. Ondorioak.

I. Sarrera (1)

Sare-neutraltasunaren inguruko eztabaida ez da berria (2). Hala eta guztiz ere, 2000ko hamarkadan Internetek izan duen arrakasta dela-eta, agintaritzek, batez ere lehia askea bermatzeaz arduratzen direnek, behatzeari ekin diote, sare horren gainean kontrola duten enpresak, kontrola horretaz baliatu ez daitezela sare-trafiko mota ezberdinen artean bidegabeki bereizteko (3). Dena den, lehiaren agintaritzek euren begirunea erakutsi diete berariazko sektore-erregulatzailerei, haiek hobeto kokatuta daudelakoan arautzen dituzten sektoreetako arau-haustekak konpontzeko eta, beharrezkoa denean, halakoak zehatzeko.

(1) Autoreek eskerrak eman nahi dizkiote William Jaunari artikulua arretaz irakurri eta zuzendu izanagatik.

(2) CARTER, K.R.; MARCUS, J.S. eta WERNICK, C., «Network neutrality: Implications for Europe», *WIK Diskussionsbeitrag-en*, Bad Honnef, 314 zk., 2008, 4. or.

(3) DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited: Challenges and Responses in the EU and in the US*. IMCO Batzorderako Estudioa, 2014, 11. or.

Europar Batasunaren ustez, praktikak erakusten du aski araututa dagoen merkatu hau ez dagoela prest, oraindik ere, lehiaren joko askera irekitzeko. Horregatik, gehienbat, Telekomunikazioen Merkatu Bakarrerako Erregelamendua hartu dute. Ikerketa honetan, beraz, komunikazio elektronikokoetako merkatuaren egitura izango dugu aztergai, egungo arauketa — Telekomunikazioen Merkatu Bakarreko Erregelamendua eta gerokoa — dela-bide, sor daitezkeen lehia-distortsioak edota -murrizketak identifikatzeko (1.go atala) eta, ahal den neurrian, irtenbidea bilatzeko asmoz, araupean dagoen merkatu batetik lehia askearen menpe dagoenera igaro ahal izateko (2. atala).

Ikusiko dugunez, sare-neutraltasuna ez da komunikazio elektronikokoetako merkatua lehia askera irekitzeko ibilbidean eman den lehenengo pausua, ez bada eman behar den azkena. Europar Batasunaren adibidea hartuta, merkatua arautu zen lehia askera irekita dagoen Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortzeko. Hala eta guztiz ere, Merkatu Bakarra erdietsi arren, sarea neutrala ez den bitartean, lehiaren kontrako arau-hausteek iraungo dute, merkatuaren lehiakortasuna eragozten. Bada garaia, beraz, arauketatik lehiara igarotzeko, merkatua badelako nagusi, badagoelako prest lehia agintaritzen zaintzapean jartzeko eta, hala denean, horien gaitzespena jasotzeko.

II. Abiapuntua: sare-neutraltasunaren printzipioa, inoiz baino beharrezkoagoa

Internetaren erabileraren hedapenaren ondorioz, sare elektronikoen bidez egiten diren transakzio-kopurua areagotu da. Komunikazio- eta garraio-sareen neutraltasunaren inguruko eztabaida berria ez den arren, Internetaren hazkundeak berpiztu du hausnarketa, sare elektronikoen horrek duen berebiziko garrantziagatik⁽⁴⁾. Azken batean, ikuspuntu teknikitik, komunikazio- eta garraio-sareak erreplikatzeko zailak izan ohi dira, eurak eraikitzeak dakartzan *sunk cost*-engatik, eta, ondorioz, sare-erabiltzaileen arteko mugagabeko bereizkeriak lehia ikaragarri murriztuko luke sare horrek harremanetan jartzen dituen merkatu-segmentuetan. Horrez gain, Interneten asmo orokorrerako teknologia da, ekonomiaren hainbat alorretan aplikatzeko gai den funtzionaltasun generikoa eskaintzen duelako; ondo-

(4) Erresuma Batuan eta AEBtan, *Law of Common Carriage* zelakoak erantzuna ematen zion sare-industrietan gerta zitekeen kezka. Zuzenbidearen alor horrek agintzen zuen bezala, garraiolari arruntek ezin zuten euren erabiltzaileen artean bidegabeki bereizi, hau da, guztiei eman behar zien zerbitzua. CARTER, K.R.; MARCUS, J.S. eta WERNICK, C., «Network neutrality: Implications for Europe... *op. cit.* (2. oin-oharrean), 4. or.

rioz, euren berezko handitze potentziala egikaritzeko, sarearen erabilerak identifikatu eta aplikazioak garatu egin behar dira (5).

Atal honetan, operadoreek komunikazio elektronikoetako merkatuan sartzeko eta aritzeko topatzen dituzten barrerak, merkatuaren egiturari datzekionak, aztertuko ditugu (2.1. puntua), merkatuaren segmentuen arteko elkarreaginei eta sorraz ditzaketen lehia-distortsioei zein -murrizketei erreparatu. Horrela, sarearen neutraltasuna da lehiarako oztopo horiek gainditzeko beharrezko tresna (2.2. puntua).

II.1. Merkatuaren egituraren ondoriozko itxiera: merkatuan sartzeko eta aritzeko barrerak

Komunikazio elektronikoetako merkatuari —Interneta delakoari— eman zaion tratamendu berezitua ulertu ahal izateko —batez ere Lehiaren zuzenbidearen ikuspuntutik— horren berezko izaerari erreparatu behar diogu. Interneta gaur egungo gizartearen hazkunde ekonomikoa bultzatzeko tresnarik inportanteentzat hartzen dugu (6). Hala eta guztiz ere, ikusiko dugunez, komunikazio elektronikoetako merkatuaren ezaugarriek lehia-distortsioak zein lehia-murrizketak azaltzen dituzte, batez ere sarea emateko segmentuan (7).

II.1.1. BI ALDEKO MERKATUAREN PARADIGMA

Interneta bi aldeko merkatuaren paradigma ikusita aztertu ahal da —*two-sided market*— (ikus *1.go Irudia*). Horrela, plataforma bat daukagu —Interneta bera, hots—, bi erabiltzaile-talde harremanetan jartzen dituen: *online* edukiak ematen dituen erabiltzailea (aurrerantzean, eduki-

(5) SCHEWICK, I.B., «Towards an Economic Framework for Network Neutrality Regulation», *The 33rd Research Conference on Communication, Information and Internet Policy-n*, TPRC 2005, 35.-38. or.


(6) SCOTT, B.; COOPER, M. eta KENNEY, J., «Why Consumers Demand Internet Freedom Network Neutrality: Fact vs. Fiction», *Free Press-en*, http://www.freepress.net/sites/default/files/fp-legacy/nn_fact_v_fiction_final.pdf, 2006, 7. or.

(7) Lehia-distortsioak eta lehia-murrizketak nozio ezberdinak dira: distortsioak sortzen dira lehiari aritzeko baldintzak ezberdinak direnean —distortsio naturalak— edo baldintza ezberdinak ezartzeko arauak hartzen direnean —eragindako distortsioak—; murrizketak, aldiz, praktika baten ondoriozkoak dira. Estatuak merkatuan esku-hartzen dutenean, dela merkatua arautzeko, dela merkatuan produktu eta zerbitzuak eskatzeko, lehia-distortsioak eragin ditzakete; merkatuan aritzen diren enpresek —operadoreek, publiko nahiz pribatuek—, aldiz, lehia-murrizketak eragiten dituzte. QUITZOW, C.M., *State Measures Distorting Free Competition in the EC: A Study of the Need for a New Community Policy Towards Anti-competitive State Measures in the EMU Perspective*. Kluwer Law International. 2001, 217. or.

emailea) eta azken erabiltzailea (8). Hortaz, Internetaren hornitzaileak (aurrerantzean, sare-emaileak) onurak ateratzen ditu bi erabiltzaile-talde horiek harremanetan jartzetik (9). Ondorioz, sare-merkatu honetan ohiz kanpoko prezio-eskemak ezar daitezke, beste edozein ohiko merkatuan irrazionalak izango liratekeenak: merkatu tradizional batean, prezioa batez besteko prezio gehigarriari dagokion batez besteko kostu gehigarria baino behekoa bada, merkatuaren hutsegitea antzeman daiteke; halere, bi aldeko merkatu batean, prezio horiek guztiz normalak eta arrazionalak izan daitezke, prezio-maila ez ezik, horien egitura ere kontuan hartu behar den heinean (10).

1. Irudia

Alde biko komunikazio elektronikoko merkatuaren egitura



Iturria: Autoreek egina

Zenbat eta sare-erabiltzaile —eduki-emaile zein azken erabiltzaile— gehiago izan, orduan eta gorago egiten du sarearen balioak, sare-efektuak

(8) WEBER, R.H., «Competition Law Issues on the Online World», *20th Gallen International Law Forum ICF-n*, 2013, 2. or.

(9) Sarea hornitzeko zerbitzuak ekonomi-jardueraren bi mailari egiten dio erreferentzia: (1) sare fisikoak abian jartzeko zerbitzuari; eta, sare fisiko horiek erabilia, (2) sarerako sarbidea —Interne-terako sarbidea, alegia— emateko garraio-zerbitzuari. SCHEWICK, I.B., «Towards an Economic Framework... op. cit. (5. oin-oharrean), 3. or. Gainera, DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited...* op. cit. (3. oin-oharrean), 2. or.; VALCKE, P; HOU, L. eta KOSTA, E., «Guardian Knight or Hands Off: The European Response to Network Neutrality — Legal Considerations on the Electronic Communications Reform», *Communications & Strategies-en*, 72 (89-112) zk., 2008, 1. or.

(10) CARTER, K.R.; MARCUS, J.S. eta WERNICK, C., «Network neutrality: Implications for Europe... op. cit. 2, 11. eta 16. or.; DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited: Challenges and Responses...* op. cit. (3. oin-oharrean), 39. or.

sorrarazten dituelako (11). Sare-efektuak zuzenak izan daitezke —sareak horren erabiltzaileei komunikatzeko aukera gehiago erakartzen dizkietako— zein ez-zuzenak —merkatuaren alde baten erabiltzaile-multzoa gora egiteak beste aldean daudenak sarean sartzera bultzatzen dituelako, azken horiek uste baitute sare horren barruan transakzio-kide gehiago izango dituztela— (12). Beraz, balioak ez datza eskala-ekonomietan, elkarri eragiteko aukeretan baizik (13).

Horri guztiari, eta komunikazio elektronikoko merkatuaren irudi osoa izateko, honako hau gehitu behar zaio: sarea bera mugatua da. Bai sarearen bidez edukiak ematen dituztenak, bai sarearen azken erabiltzaileak lehiatzen dira ahalik eta sare-baliabide gehien lortzeko; hortaz, sare-emaeleek sarea erabiltzeko eskaintzak kudeatzeko beharra dute. Kudeaketa hori era ahalik eta garbien egitean datza sare-neutraltasun printzipioak (14).

II.1.2. MERKATUAN SARTZEKO ETA ARITZEKO LEHIA-OZTOPOAK

Egoera horretan, sare-emaeleek sare-trafiko mota bat lehenetsi beharko dute, beste sare-trafiko motaren aurrean. Halere, lehenespena ez da kaltegarria berez lehenesten ez den sare-trafiko motarentzat: informazio edo aplikazio batzuei atzerapenak ez die kalterik egiten, sarearen erabilera eta erabiltzaile guztiak ez direlako berdinak (15). Sare-eduki batzuek besteek baino banda-zabalera handiago eskatzen dute —bideo-zerbitzuek email-zerbitzuek baino—, edota ez dute atzerapena onartzen —denbora errealean egindako bi norabideko ahots-zerbitzuek email-zerbitzuek baino— (16).

(11) Sare-efektuez baliatzeko, sarea ahalik eta zabalen izan behar da. Horrela, sarea zabaltzeko asmoz, hau da, sarearen balioa handitzeko asmoz, sare-emaeleek zerbitzu-baldintza desberdinak eskaintzeko tentazioa izan dezakete. CARTER, K.R.; MARCUS, J.S. eta WERNICK, C., «Network neutrality: Implications for Europe... *op. cit.* (2. oin-oharrean), 11. eta 12. or.

(12) Sare-efektuek kontzentrazio-efektuak sorrarazten dituzte, *winner-takes-it-all* efektuak direlakoak. DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited: Challenges and Responses...* *op. cit.* (3. oin-oharrean), 40. or.; WEBER, R.H., «Competition Law Issues on the Online World... *op. cit.* (8. oin-oharrean), 2. eta 3. or.

(13) Eskala-ekonomiak direla-eta, unitate bakoitzaren kostuak behera egiten du ekoiztutako eta kontsumitutako unitate-kopuruak gora egiten badu. Halere, bi aldeko merkatuetan, sarearen balioak gora egiten du sare-erabiltzaileak harremanetan jar dezakeen beste erabiltzaile-kopuruak gora egiten badu, sare-erabiltzaile bakoitzak erabiltzaile berria sarean sartzeko transakzioan parte hartu izan ez arren. CARTER, K.R.; MARCUS, J.S. eta WERNICK, C., «Network neutrality: Implications for Europe... *op. cit.* (2. oin-oharrean), 12. or.

(14) Kudeaketa-lan horretan, sare-emaeleek hainbat tresna dituzte, dela eduki-emaeleen aplikazioak atzeratzeko —*queuing discipline*—, dela eduki-emaeleen informazioa baztertzeko —*drop priority*—.

(15) DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited: Challenges and Responses...* *op. cit.* (3. oin-oharrean), 44. or.

(16) CARTER, K.R.; MARCUS, J.S. eta WERNICK, C., «Network neutrality: Implications for Europe... *op. cit.* (2. oin-oharrean), 9.-10. or.

Beraz, erabilera desberdin horiek kontuan hartuz eta banda-zabalera mugatuari aurre egiteko, sare-emaileek lehenetsi egiten dituzte sare-trafiko mota batzuk; baina bereizketa hori ez da Lehiaren zuzenbidearen kontra-koa izango, baldin eta sare-emaileak ez badu lehenespenak erabiltzen bere merkatu-kuota handitzeko, dela bera dagoen merkatu-segmentuan, dela lotutako beste merkatu-segmentu batean (17).

Komunikazio elektronikoko merkatua dela-eta, sarea emateko segmentuan sartzeko barrera esanguratsuak daudela aitor dezakegu. Sarea emateko segmentuaren liderrak, hau da, sare-emaile handienak, bere erabiltzaileak harrapatuta izango ditu —*lock-in* efektua—, sare-emailea aldatzeko kostuengatik (sare berria nola funtzionatzen duen ikasi beharko dutelako), baita ohiko sarearen erabiltzaileekin komunikatzeko topa dezaketen ezintasunagatik ere (18). Gainera, *switching cost*-ekin jarraituz, sare-erabiltzaileak ohituta daudenez jasotzen dituzten zerbitzuengatik ez ordaintzera, sare-emailea aldatzeko aukera izanda, dohainik jasotzen zuten zerbitzuarengatik ordaindu behar izateko arriskurik balego, erabiltzaileek uko egingo liokete aldatzeari. Eta, are gehiago, sare-erabiltzaileek sare bakar bat izatea eraginkortzat jotzen dute, informazioaren bilaketa-kostuak gutxitzen direlako eta prezioen gardentasuna bermatzen delako (19).

Horren harira, sare-efektu horiez baliatuta, sare-emailea bere merkatu-boterea handitzen joango da, sarea emateko segmentuan posizio nagusia —*quasi* monopoliokoa, akaso— izan arte. Gainera, sarea emateko segmentuan posizio nagusia duen sare-emailea posizio hori lotutako beste merkatuetan islatzen ahalegin daiteke —sarearen bidez edukia emateko segmentuan, adibidez— (20). Horrela, eduki-emaileek oztopoak aurki ditzakete haien zerbitzuak azken erabiltzaileei helarazteko.

(17) Lehenespena legezkoa izango da Pareto hobekuntza ekartzen badu: horren arabera, sare-trafiko mota batek hobera egingo du beste sare-trafiko mota bat txarrera egin barik. Ikusi DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited: Challenges and Responses...* *op. cit.* (3. oin-oharrean), 44. or.

(18) WEBER, R.H., «Competition Law Issues on the Online World...» *op. cit.* (8. oin-oharrean), 5. or.

(19) *Supra*, 3. or.

(20) Beraz, hurrengo atalean sakonago aztertuko dugunez, komunikazio elektronikoetako merkatuan bi segmentu bereiz daitezke: sarea ematekoa eta edukiak —informazioa zein aplikazioak— ematekoa. Aditzera eman dugun bidegabeko tratua horren adibide gisa, SCOTT irakasleak jarritakoa erabil dezakegu: «There is nothing to stop AT&T [sare-emailea] from pushing content providers [eduki-emaileak] into exclusive deals denied to Comcast or Time Warner subscribers [beste sare-emaileen erabiltzaileak]. There is nothing to stop Verizon [beste sare-emailea] from slowing down Web sites they dislike and speeding up others with impunity. There is no reason why BellSouth [beste sare-emailea] couldn't make a deal with Amazon [eduki-emaile bat] to make it the only online book retailer on its network. There is nothing to stop discrimination for social, economic or political reasons». Ikusi SCOTT, B; COOPER, M. eta KENNEY, J., «Why Consumers Demand Internet...» *op. cit.* (6. oin-oharrean), 4. or.

II.2. Neutrala den sarearen ezinbestekotasuna: merkatuan sartzeko eta aritzeko askatasuna

Sare-neutraltasunerako deiak sare-emaileek ez-afiliatutako eduki-emaileen artean bidegabeki bereizteko pizgarriak izatearen onarpenean oinarritzen dira; batez ere, ez-afiliatutako eduki-emaile horiek produktu osagarriak eskaintzen dituztenean (21). Hitz batean esanda, sare-neutraltasunaren printzipioak babestu egiten du eduki-emaileek duten eskubidea sarea erabiltzeko eta sare-emaileek duten betebeharra zerbitzu osagarriak eskaintzen dituzten eduki-emaile independenteen artean ez bereizteko, baita saretik ez kanporatzeko ere (22).

Europar Batasuneko komunikazio elektronikoetako merkatuaren egitura ikusiz gero, konturatuko gara sare-emaileen kopuruak —monopolio-koa ez denak— azaltzen duela orain arte Europar Batasunean sare-neutraltasunaren inguruan arazo gutxi gertatu izana (23). Hala eta guztiz ere, aurreko atalean azaldutako arrazioak direla-medio, sare-emaileek pizgarriak izan ditzake nagusitasun-egoera bilatzeko eta hura lotutako merkatu-segmentuetan islatzeko, eduki-emaileek duten merkatu-segmentu horietan sartzeko eta aritzeko askatasuna kaltetuz.

Sare-emaileek aldarrikatzen dutenez, sare-neutraltasunerako arauketek murriztu egiten dituzte sare-mailan berrikuntzak egiteko eurek dituzten pizgarriak, arauketok haien irabaziak urritzen baitituzte (24). Alabaina, eduki-emaileek edukiak —informazioa zein aplikazioak— emateko merkatu-segmentuan sartzeko eta aritzeko askatasuna izanez gero, aplikazio-mailako berrikuntza piztuko da, merkatu-segmentu horretan aritzen diren operadoreak lehian arituko direlako, ahalik eta merkatu-kuotarik altuen lortzearen. Beraz, sare-neutraltasunak aplikazio-mailako berrikuntza eta sare-mailako berrikuntza buruz buru jartzean datza.

Dena den, bi-biak alderatuz gero, honako bi alde hauek hartu behar dira kontuan: alde batetik, sare-mailako berrikuntzak egiteko pizgarri gehiago daude berez, berrikuntza horren ondoriozko onura ekonomikoak sare-emaileek beraiek zuzen-zuzenean jasoko dituztelako; beste aldetik, aplikazio-mailako berrikuntza hazkunde ekonomikorako erabakigarria

(21) SCHEWICK, I.B., «Towards an Economic Framework... *op. cit.* (5. oin-oharrean), 2. or. Ez da beharrezkoa sare-emailea eta eduki-emailea integratuta egotea bidegabeko bereizkeria aurrera eramateko; batzuetan, integrazioerik —bata bestearengana merkataritzaren menpekotasunik— egon ez arren, sare-emaileak akordioetara heltzen dira aplikazio-emaile jakin batekin, sare-emaile zehatz horren sarea erabiliz gero beherapenak izateko.

(22) *Supra*, 35. or.

(23) DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited: Challenges and Responses...* *op. cit.* (3. oin-oharrean), 14. or.

(24) SCHEWICK, I.B., «Towards an Economic Framework... *op. cit.* (5. oin-oharrean), 35.-38. or.

da(25). Gainera, *hardware*-teknologiaren ingeniartzaren —sare-ingeniartzaren— zientzia-oinarria *software*-ingeniaritzarena baino aurreratuago dago. Hori gutxi balitz, lehen esan bezala, Interneta asmo orokorrerako teknologia da; horregatik, teknologi horren erabiltzaile guztiek aplikazio guztiak behar ez dituzten arren, aplikazio-erabiltzaile guztiek nahitaez asmo orokorrerako teknologi hori —sarea, alegia— behar dute, eurek erabili nahi dituzten aplikazioak exekutatu ahal izateko (26). Bukatzeko, *wireless* teknologiaren garapenak, ustez, banda-zabaleraren azpiegitura hobetzearen kostua gutxituko du, eta, ondorioz, sare-mailako berrikuntzaren kostua ikaragarri murriztuko du. Hortaz, bi-biak balantza batean jarritz gero, ukaezina da aplikazio-mailako berrikuntzaren pisua handiagoa dela; beraz, sare-emaileek ezin izango dituzte eduki-emaileak bidegabeki bereizi, eduki-emaileok sare-emaileei afiliatuta ez dauden arren.

Sare-neutraltasunaren printzipioak ez du bazterten sare-emaileen integratze bertikala beste merkatu-segmentu osagarrietan (ikus *2. Iru-dia*) (27). Komunikazioen industria, gainera, bertikalki integratzerako joera du (28). Halere, Lehiaren zuzenbidearen ikuspuntutik, nahiz eta debekatuta ez egon, integratze hori gertutik zaindu behar da, horrek ekarri ahal duelako sare-emailearekin integratuta dagoen eduki-emailearen aldeko tratu, batez ere sare-emaileak azken erabiltzaileei jakinarazten badie kobratuko diela hirugarrenen eduki-emaileekin harremanetan jartzeagatik edota horien aplikazioetara sartzegatik (29). Horren harira, afiliatorik ez duten eduki-emaileen merkatuan aritzeko askatasuna bermatzeko, interkonexioa eta interoperagarritasuna ezinbestekotzat joko dira, eduki-emaile horiek erabiltzen dituzten sareak eta azken erabiltzaileek erabiltzen dituztenak bateragarriak izan daitezzen (30).

(25) SCHEWICK irakasleak jakinarazi du hobe izango zela Estatuak diru-laguntzak ematea banda-zabaleraren azpiegitura zabaltzeko, sare-emaileei diskriminatzeo aukera ematea baino, diskriminazio horrek hazkunde ekonomikoari ekarriko lizkion ondorioengatik, aplikazio-mailako berrikuntza ito egingo lukeelako. *Supra*, 38.-40. or.

(26) *Supra*, 38-39. or.

(27) Integratze bertikala afiliatortik harago doa: integratze bertikalaren ondorioz, ekoizpen-prozesuaren bi fase ezberdinetan dauden enpresak enpresa-talde berean sartzen dira. Kasu honetan, sare-emaile batek eduki-emailea ezarri edo erosten du.


(28) Integratze bertikalaren bitartez, enpresek ekoizpen-kostuak gutxitzen dituzte, bi enpresa ezberdinen arteko transakzio-kostuak desagerrarazten dituztelako. Ikusi CAVE, M., «Economic aspects of the new regulatory regime for electronic communications services», Buigues, P.A. eta Rey, P. (ed.ak), *The Economics of Antitrust and Regulation in Telecommunications — Perspectives for the New European Regulatory Framework*-en. Edward Elgar. 27-41 zk., Cheltenham, 2004, 31. or.

(29) CARTER, K.R.; MARCUS, J.S. eta WERNICK, C., «Network neutrality: Implications for Europe... *op. cit.* (2. oin-oharrea), 20. or.

(30) DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited: Challenges and Responses... op. cit.* (3. oin-oharrea), 40. or.

2. Irudia

Integratze bertikalaren lehiarako arriskua



Iturria: Autoreek egina

III. Helburua: merkatua lehia askera irekitzea

Sare-neutraltasunari emandako babesa, eraginkorra izan ez arren, Europar Batasunean —mundu osoan ez bada— Internetaren garapenaren hasiera-hasieratik izan da presente, lehenik ere, esan bezala, beste komunikazio- eta garraio-motetako sareen neutraltasuna babesten zelako (31). Dena den, konturatu garenez, gizartearen hazkunde ekonomikoa posible egin eta, lerketa, Garapen eta Berrikuntza (I+G+B) politikak aurrera eramateko, sarea ezin da sare-emaileen nahierarako kontrolpean egon; aitzitik, lehiaren joko askearen menpe utzi behar da. Merkatu lehiakor batean, Interneta sare-erabiltzaileen kontrolpean legoke, eurak aske izango liratekelako nahi luketen informazioa zabaldu edo aplikazioa garatu eta exekutatzeko, sare-trafiko osoak tratu bera jasoko bailuke (32). Sare-emaileak zerbitzu-maila ezberdinak eskaini ahal dituen arren —sare-erabiltzaileek kontratatu nahi duten banda-zabaleraren arabera—, behin beharrianen arabera zerbitzu-maila bat kontratatu eta gero, sare-neutraltasunaren printzipioaren arabera, zerbitzu-maila bereko sare-erabiltzaileen artean

(31) SCOTT, B; COOPER, M. eta KENNEY, J., «Why Consumers Demand Internet Freedom... *op. cit.* (6. oin-oharrean), 3. or.

(32) 2002/21/EE Egitura-zuzentaraua, 8. art. 2009/140/EE Zuzentarauak, Arauketa Hoberako Zuzentaraua izenekoak, 2002/21/EE Egitura-zuzentaraua zuzendu zuen. Horrez gain, ikusi BEREK, «Summary of BEREC positions on net Summary of BEREC positions on net neutrality», *BoR-en*, 146 (12) zk., 2012; SCOTT, B; COOPER, M. eta KENNEY, J., «Why Consumers Demand Internet Freedom... *op. cit.* (6. oin-oharrean), 6. or.

ezin da bidegabeko bereizkeriarik izan, afiliatuta egon zein ez, integratuta egon zein ez(33).

Atal honetan, Europar Batasuneko merkatu elektronikoetako arauketaren bilakaera jorratuko dugu (3.1. puntua), Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortzeko ahaleginek eragina izan dutelako Europar Batasuna osatzen duten Europar Batasuneko Estatu guztietako komunikazio elektronikoetako merkatuetan. Gainera, bigarren urrats batean, etorkizunari begira, sare-neutraltasunaren bilaketa justifikatzen duen lehiarako irekieraren alde egingo dugu (3.2. puntua), Europar Batasuneko komunikazio elektronikoetako merkatua prest dagoelako lehiaren joko askera irekitzeko; hau da, lehiaren defentsarako agintaritzek merkatuko operadoreen praktikak kontrolatu eta, Lehiaren zuzenbidearen kontrakoak izanez gero, zehatuko dituzte.

III.1. Gaur egungo egoera: Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortzeko ahaleginak

Europar Batasunean bi momentu bereiz daitezke, jarraian zehatz-mehatz aztertuko ditugunak, Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortzeko ibilbidean: (a) Europar Batasuneko telekomunikazioak liberalizatzeko 1998ko arau-multzoa (3.1.1. puntua) eta (b) Europako Telekomunikazioen Merkatu Bakarra behingoz erdiesteko araua, hots, *Telecoms Single Market* Erregelamendua (3.1.2. puntua).

III.1.1. MERKATU-ARAUKETEN HARMONIZAZIOA: ZUZENTARUAUK

Esan bezala, 1998ko arau-multzoaren helburua Europar Batasuneko telekomunikazioen merkatua liberalizatzea zen; horrela, gobernuek euren telekomunikazio-merkatuetarako sarrera liberalizatzeko betebeharra zuten —salbuespenak salbuespen, Estatu batzuei epe-hedatzeak eman baitzitzairen— (34).

(33) BHARDWAJ, Alok, «Against Fee-Based and other Pernicious Net Prejudice: An Explanation and Examination of the Net Neutrality Debate», *Scribd*-en, 2007, 1.go or.; EUROPAKO LEGEBILTZARRA, *The EU rules on network neutrality: key provisions, remaining concerns*. Txostena, 2015.

(34) Luzapenak eman zitzaizkien Luxenburgori, Espainiari, Greziari, Irlandari eta Portugali. Ikusi CAVE, M., «Economic aspects of the new regulatory regime for electronic... *op. cit.* (28. oin-oharrean), 27. or.; GRAACK, C., «Deregulation, Privatization and Internationalization of European Telecoms Markets», Welfens, P.J.J., Yarrow, G., Grinberg, R. eta Graack, C. (Ed.ak), *Towards Competition in Network Industries: Telecommunications, Energy and Transportation in Europe and Russia*-n. Springer. 79-110 zk., Potsdam, 1999, 80. or.

Arau-multzo hori honako zuzentarau hauek osatzen zuten: (1) zuzentarau orokor bat, 2002/21/EE Zuzentaraua, Marko-zuzentaraua izenekoa; eta (2) lau zuzentarau zehatzak, (a) 2002/20/EE Zuzentaraua, Baimen-zuzentaraua izenekoa; (b) 2002/19/EE Zuzentaraua, Sarbide-zuzentaraua; (c) 2002/22/EE Zuzentaraua, Zerbitzu Unibertsalaren inguruko Zuzentaraua; eta (d) 2002/58/EE Zuzentaraua, Pribatutasun eta Komunikazio Elektronikoen inguruko Zuzentaraua.

Hasieran, Zuzentarau horiek guztiek ezartzen zuten arauketa-markoa malgua izan behar zen, Europar Batasuneko kideek telekomunikazio-merkatuaren liberalizazio-prozesua abiadura ezberdinetan gauzatzen zutelako (35). Azken batean, Europar Batasunean komunikazio elektronikoko merkatua monopoliokoa izan ohi da, merkatuaren zabalera geografikoa Estatuetakoa izanik —*national champions* deritzotenak— (36). Edozein kasutan ere, arauketa horren helburua liberalizazioaren ibilbidea hastea zen, gero merkatua lehia askerako ireki ahal izateko: lehia ezartzen zen heinean, esku-hartze arautzailea murriztuz joango zen, merkatua Lehiaren zuzenbide generikoak gidatuko baitzuen (37).

Arauketok, beraz, Merkatu Bakarra lortzeko behar-beharrezkoa zen marko uniformearen ezarri zuten, Estatuari barne-merkatuak liberalizatzeko abiadura inposatzeko. Oro bat, Europako Batzordearen aburuz, arauketa-marko horri esker, sare-neutraltasunaren inguruko gorabeherak, berriazko merkatu-sektoreak arautzeari lotutakoak, Estatuaren agintaritzaren arautzaileek —*National Regulatory Authorities*-ek— era eraginkorrean konpon zituzketen, Estatuaren lehia agintaritzetara —*National Competition Authorities*-engana— jo gabe (38).

Arauketa-markoak ezarritakoari jarraituz, sare-emaileek, nagusitasunezko egoeran izanez gero, sarerako sarbidea bermatu behar zuten euren lehiakideei —bai *upstream* merkatuan, bai *downstream* merkatuan—, araututako prezio eta baldintzetan (39). Prezio eta baldintza horiek barne-merkatu bakoitzari egokitzeko, Estatu bakoitzaren agintaritzaren arautzaileek euren Estatuaren barne-merkatuaren ezaugarriak aztertu beharko zi-

(35) CAVE, M., «Economic aspects of the new regulatory regime for electronic... *op. cit.* (28. oin-oharrean), 27-28. or.

(36) CINCERA, P. eta SITTER, N., «EU Competition Policy and the Transition to a More Competitive Communications Industry», Eliassen, K.A. eta From, J. (Ed.ak), *The Privatisation of European Telecommunications*-en. Ashgate. 75-91 zk., Hampshire, 2007, 75. or.

(37) CAVE, M., «Economic aspects of the new regulatory regime for electronic... *op. cit.* (28. oin-oharrean), 30. or.; GRAACK, C., «Deregulation, Privatization and Internationalization... *op. cit.* (34. oin-oharrean), 80. or.

(38) CARTER, K.R.; MARCUS, J.S. eta WERNICK, C., «Network neutrality: Implications for Europe... *op. cit.* (2. oin-oharrean), 54. or.

(39) DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited: Challenges and Responses...* *op. cit.* (3. oin-oharrean), 89. or.

tuen, merkatu horretan zeuden operadoreen batek nagusitasunezko egoeran zegoen(40).

2006an, telekomunikazioen merkatuaren liberalizazioa aurrera zihoala, Europako Batzordeak arauketa-markoa berrikusteari ekin zion. Batzordea konturatu zen lehen arauketa-markoak ez zituela sare-neutraltasunaren inguruko kezkak berariaz barneratzen; horrela, sare-neutraltasuna ezinbesteko kontu bihurtu eta horren inguruko eztabaida berpiztu zen 2006ko aldaketak egin eta gero, 2009an indarrean sartu zirenak(41). Horrek frogatu egiten du sare-neutraltasun printzipioa ez dela merkatuaren liberalizazioa bilatzeko oinarria, merkatuan lehia eraginkorraren menpe izateko baldintza baizik. Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortzeko prozesuaren lehenengo faseak barne-merkatuen liberalizazioa zuen helburu; horretarako, merkatua *National Regulatory Authorities*-en eskuetan utzi zen, merkatuaren egoera ikusita, ondoen kokatutako agintaritzak zirelakoan. Momentu hartan, sare-neutraltasunaren inguruko kezkarik ez zen azaldu. Bigarren fasean, aldiz, telekomunikazioen barne-merkatuen liberalizazioa jada gauzatu denez, *national champions*-ekin bukatu baino, arauketa Merkatu Bakarrerantz mugitzen da. Merkatu Bakar hori lortzeko sare-neutraltasun printzipioa ezinbestekotzat hartzen da, merkatu-segmentuen operadoreen arteko lehia askea eta eraginkorra bermatzearen. Hortaz, monopoliokoak diren barne-merkatuak lehiara irekitzetik —lehenengo fasean bezala—, Merkatu Bakar bat eraikitzea igaro zen, non barne-merkatuetan aritzen ziren operadoreek ez zituen oztoporik jartzen, lehia benetan eraginkorra izan zedin.

Sare-neutraltasun betebeharrak hori 2009ko Zuzentarauak, Arauketa Hoberakoak, sartutako honako aldaketa hauek barneratzen dute: alde batetik, Marko-zuzentarauaren 8. artikulua eraldatu zen, azken erabiltzaileei eskubidea aitortzeko nahi zituzten eduki, aplikazio eta zerbitzuetara sartu ahal izateko —hori zen, hain zuzen ere, Europar Batasunaren politikaren berriazko helburuetako bat—; beste aldetik, Zerbitzu Unibertsalaren inguruko Zuzentarauaren 20. artikulua eraldatu zen, sare-emaileak behartzeko euren azken erabiltzaileei informazioa ematera trafiko-kudeaketaren inguruan,

(40) Estatu batzuetan —Espainian, adibidez— nagusitasunezko egoeraz baino, monopolioko hitz egin beharko genuke, telekomunikazioen barne-merkatuen liberalizazioa hasi zenean, telekomunikazioen barne-merkatuan enpresa bakar bat baitzegoen —Telefónica, hots—. Internetaren sorrera eta hazkunde telekomunikazioen liberalizazio-prozesua martxan zegoela gertatu dira: komunikazioetarako eta informazioa zabaltzeko ohiko sare telefonikoa erabiltzetik, sare elektronikoa nagusitzeraz igaro da. Sare telefonikoa ematen zuten enpresen Estatukideen barne-merkatuetako monopoliokoak apurtu izan ez balira, sare telefonikoa ematen zuten enpresek euren nagusitasuna zabalduko zuketean sare elektronikoa emateko lotutako merkatu horretara.

(41) Arauketa Hoberako Zuzentarauak, 2009/140/EE delakoak, aurreko Zuzentzarau batzuk aldarazi zituen. DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited: Challenges and Responses...* op. cit. (3. oin-oharrean), 90. or.

eta, era berean, azken erabiltzaileei askatasuna aitortzeko sare-emailea aldatzeko, beronen trafiko-kudeaketa praktikekin bat ez badator.

III.1.2. MERKATU-ARUKETEN INTEGRAZIOA: TELECOMS SINGLE MARKET ERREGELAMENDUA

Telekomunikazioen barne-merkatuen aruketaren harmonizazioa nahikoa ez zelakoan, Europar Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortzeko, 2013an Europako Kontseiluak Europako Batzordeari eskatu zion *Telecoms Single Market*-a lortzeko proposamena aurkezteko (42). Horretarako, Europako Batzordeak aruketa-multzo bat prestatu zuen. Batzordearen iritziz, Kontseiluak uste zuen bezalaxe, artean indarrean zegoen aruketa-markoa ez zen egokia komunikazio elektronikoetako Merkatu Bakarra lortzeko: aruketa-markoak askatasun zabalegia ematen zien Estatuari euren arauak hartzeko. Halaber, arauon arteko ezberdintasunek zaildu egiten zuten Merkatu Bakarra lortzea, Estatu bakoitzaren lurralde-eremutik kanpoko zerbitzuak ustiatu eta jasotzeko barrerak ezartzen zituztelako (43).

Ondorioz, Batzordeak erregelamendu bat hartzeko proposamena aurkeztu zuen: *Telecoms Single Market* Erregelamendua (44). Erregelamendu

(42) EUROPAKO KONTSEILUA, *The European Council in 2013*. Brusela, 2014, 63. or.

(43) EUROPAKO BATZORDEA, *Propuesta de Reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo por el que se establecen medidas en relación con el mercado único europeo de las comunicaciones electrónicas y para crear un continente conectado, y se modifican las Directivas 2002/20/CE, 2002/21/CE y 2002/22/CE y los Reglamentos (CE) n.º 1211/2009 y (UE) n.º 531/2012, COM(2013) 627 final, 2013/0309 (COD)*. Brusela, 2013, 9. or.; EUROPAKO BATZORDEA, *Evaluación de Impacto acompañando el documento «Propuesta de Reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo por el que se establecen medidas en relación con el mercado único europeo de las comunicaciones electrónicas y para crear un continente conectado, y se modifican las Directivas 2002/20/CE, 2002/21/CE y 2002/22/CE y los Reglamentos (CE) n.º 1211/2009 y (UE) n.º 531/2012»*, SWD(2013) 331 final. Brusela, 2013. 29.-30. or.

(44) Tresna araugileak izango zuen izaera luzez eztabaidatu zen, baita tresna bat hartzea komenigarria zen ere, erregelamedu batek ezberdintasunak ezabatu ahal izango zituen arren, agian ez zelako gai Estatuak behar zuten malgutasuna emateko. Azkenean, Batzordeak, inpakto-ebaluzioa egin eta gero, erregelamendu bat tresnarik komenagarriena zela erabaki zuen. Ikusi DIRECTORATE GENERAL FOR INTERNAL POLICIES, *Network Neutrality Revisited: Challenges and Responses... op. cit.* (3. oinoharrean), 15. or.; EUROPAKO BATZORDEA, *Propuesta de Reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo por el que se establecen medidas en relación con el mercado único europeo de las comunicaciones electrónicas y para crear un continente conectado, y se modifican las Directivas 2002/20/CE, 2002/21/CE y 2002/22/CE y los Reglamentos (CE) n.º 1211/2009 y (UE) n.º 531/2012, COM(2013) 627 final, 2013/0309 (COD)*. Brusela, 2013, 8.-9. or.; EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUA, *Draft Progress Report on Proposal for a Regulation of the European Parliament and of the Council laying down measures concerning the European single market for electronic communications and to achieve a Connected Continent, and amending Directives 2002/20/EC, 2002/21/EC and 2002/22/EC and Regulations (EC) No 1211/2009 and (EU) No 531/2012*, Hellenic Presidency, 9950/14, 2013/0309 (COD). 2014, 8.-9. or.

horren helburuak honako hauek dira: Telekomunikazioen Merkatu Bakarra ezartzea eta osorik konektatuta dagoen kontinentea lortzea (45). Erregelamendua Europako Legebiltzarrak 2015eko urriaren 27an onetsi zuen, bigarren irakurketan (46).

Erregelamendua sare-neutraltasunaren printzipioa barneratzen du, Europar Batasunean irekita dagoen komunikazio elektronikoa posible egiten dituen sarerako sarbidea bermatzearen. Horrela, alde batetik, sortu berri diren eduki-emaileei aukera ematen die merkaturan dagoeneko zerbitzuak ematen dituzten operadoreekin baldintza berdinetan lehiari aritzeko; beste aldetik, azken erabiltzaileei bermatu egiten die nahi dituzten Interneteko eduki eta zerbitzuetara sartzeko askatasuna (47). Alabaina, nahiz eta Erregelamendua sare-trafikoaren tratu-berdintasun printzipio orokorra ezarri, tresnak berak hainbat salbuespen ezartzen ditu: ohiz kanpoko kasuetan, berritzaileak diren zerbitzu berezituak ematean edo azken erabiltzaileekin merkataritza-akordioak burutzearren. Salbuespen horien idazketak interpretaziorako tarte zabala uzten du, Telekomunikazioen Merkatu Bakarraren lorpena arriskuan jarriz, Estatuaren agintaritzek interpretatu egin beharko dituztelako, sare-emaileen praktika zehatzak legezkoak diren aztertzearen (48).

Erregelamendua Merkatu Bakarra lortzeko arauketa-prozesuan eman ahal den azken pausua da, Estatuaren barne-arauketa harmonizazioa baino integrazioa ekartzen baitu. Hala ere, barne-merkatuen liberalizazioarekin hasi zen prozesu-arautzailea, Europako erakundeek egin duten merkaturaren egoeraren inguruko azterketak agerian jarri duenez, Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortzeko ez da nahikoa. Hortaz, bada garaia arau gehiago hartu baino, gauza berdina egiten jarraitu baino, helburu zen bi-

(45) EUROPAKO BATZORDEA, *Propuesta de Reglamento del Parlamento Europeo... op. cit.* 43. izenburuari erreparatu: «por el que se establecen medidas en relación con el mercado único europeo de las comunicaciones electrónicas y para crear un continente conectado».

(46) EUROPAKO LEGEBILTZARRA, *Resolución legislativa del Parlamento Europeo, de 27 de octubre de 2015, respecto de la Posición del Consejo en primera lectura con vistas a la adopción del Reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo por el que se establecen medidas en relación con el acceso a una internet abierta y se modifica la Directiva 2002/22/CE relativa al servicio universal y los derechos de los usuarios en relación con las redes y los servicios de comunicaciones electrónicas y el Reglamento (UE) n.º 531/2012 relativo a la itinerancia en las redes públicas de comunicaciones móviles en la Unión (10788/2/2015 – C8-0294/2015 – 2013/0309(COD))*. Ohiko prozedura legegilea: bigarren irakurketa, Brusela, 2015


(47) EUROPAKO BATZORDEA, *Roaming charges and open Internet: questions and answers*, http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-15-5275_en.htm, 2015. (azken kontsulta: 2015.12.18); EUROPAKO LEGEBILTZARREKO IKERKETA-ZERBITZUA, *Net neutrality in Europe*, http://www.europarl.europa.eu/RegData/bibliotheque/briefing/2014/140773/LDM_BRI%282014%29140773_REV2_EN.pdf, 2014, 4.-5. or. (azken kontsulta: 2015.12.18).

(48) EUROPAKO LEGEBILTZARRA, *The EU rules on network neutrality:... op. cit.* (33. oin-oharrean).

dea hartzeko: merkatua lehia askera irekitzea (49). Liberalizatzeko-prozesu horren ondorioz lehiakorrek diren barne-merkatuak agintaritzaren kontrolpean jarri behar dira, lehia hori, Estatu bakoitzaren barne-merkatuaren lurralde-eremuaz harago joanez, Europar Batasun osoan eraginkorra izan dadin (ikusi 3. *Iru-dia*). Azken batean, zorakeria bat da gauza berdina egiten jarraitzea —merkatua arautzen jarraitzea— eta emaitza desberdinak lortuko direla ustea —lehia eraginkorraren menpe dagoen Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortuko dela ustea— (50).

3. Iru-dia

Europar Batasuneko telekomunikazioen merkatuen bilakaera



Iturria: Autoreek egina

(49) 2009an Komunikazio Elektronikoetako Arautzaile Europarren Erakundea (BEREC, ingelesez) ezarri zen, Europako Batzordeak 2002an ezarri zuen komunikazio elektronikoetako zerbitzu eta sareen arautzaile europarren taldea ordezkatzeko. BEREC 1211/2009 Erregelamendua ezarri zuen. 2011n, Europako Batzordeak Internet irekia eta gardena lortzeko beharrezko auziak identifikatzeko agindua eman zuen BERECi. BERECek maiatzaren 2012an aurkeztu zituen bere ikerketaren emaitzak, European Internet behingoz irekitzeko arazoa agerian utzi zutenak. Ikusi BEREC, «A view of traffic management and other practices resulting in restrictions to the open Internet in Europe. Findings from BEREC's and the European Commission's joint investigation», *BoR-en*, 12 (30) zk., 2012.

(50) Zorakeriari buruzko definiziorako, ikusi BROWN, Rita Mae, *Sudden Death*. Bantam Books. New York, 1983, 68. or.

III.2. Etorkizuna: neutrala den Telekomunikazioen Merkatu Bakar lehiakorra

Merkatuek, horien funtzionamendu egokia bermatzeko, oinarrizko arauketa-maila izan behar dute(51). Hala ere, liberalizatzeko-prozesuaren ondoriozko arauketak nagusitasunezko egoera hartzen du abiapuntutzat: azaldu dugun bezala, sare-emaile batek, komunikazio elektronikoetako merkatu-segmentuan nagusitasunezko egoeran badago, operadore horrek kautela bereziak hartu beharko ditu merkatu-segmentu horretako zein lotutako merkatu-segmentuetako lehiakideei sartzea edo aritzea ez eragozteko. Merkatu-segmentuaren egungo egoerari erreparatuz gero, nagusitasun egoeraren irizpide hori liberalizazioa gauzatzeko egokia bazen ere, Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortzeko ez da nahikoa. Sare-emaileak kautela horiek hartzera behartzeaz gain, sarearen beraren neutraltasuna bermatu behar da.

Sarea neutrala izan ezean, sare-emaileak bidegabeko bereizkeriak egin ditzake eurekin integratutako edota afiliatutako enpresen alde egitearren. Azken batean, sarea mugatua da eta horren kudeaketak sare-trafiko mota ezberdinen artean bereiztea eskatzen du. Horrela, sare-neutraltasunaren printzipioaren arabera, bereizketa hori neutrala izan behar da: sare-trafiko mota berdinei tratamendu berdina eman behar zaie.

Edozein kasutan ere, sare-emaileek tentazioa izan dezakete arauketak uzten duen interpretaziorako hutsunea bidegabeko bereizkeriarako aitzakia moduan erabiltzeko. Demagun telemedikuntza-zerbitzuak ematen dituen enpresa bat sare-emaile batekin integratuta dagoela; teoriarik, beharrezkoa izanez gero, sare-emaileak telemedikuntza-enpresa horren sare-trafikoaren alde egin dezake, justifikatuta dagoen kasuetako bat delako. Hala ere, nor arduratuko da beharrezkotasun horren ebaluaketaz? Gainera, telemedikuntza-zerbitzuak ematen dituzten enpresa asko baleude, horien guztien sare-trafikoari lehentasuna eman beharko litzaioke, eduki bera ematen duten enpresen artean bidegabeki bereizi gabe. Hori gutxi balitz, eta berritzaileak diren zerbitzu berezituak adibidearekin jarraituz, eduki-emaileek beraiek erabakiko dituzte euren zerbitzuak «berezi-tuak» diren, eta, ondorioz, berezituak diren heinean, lehentasuneko tratua izan behar duten.

Azalduetako guztia kontuan izanik, arauketa berriak, sor zitezkeen arazoei irtenbidea eman baino, aplikazio uniformerako arazo berriak sorrarazten ditu, Telekomunikazioen Merkatu Bakarra lortzea zailduko dutenak. Halaber, sare-neutraltasunaren printzipioa barneratu arren, ez du sare-neutraltasuna modu eraginkorrean bermatzen, sare-emaileei sarea

(51) CINCERA, P. eta SITTER, N., «EU Competition Policy and the Transition... *op. cit.* (36. oin-oharrean), 75. or.

nahierara kudeatzeko aukera ematen dielako. Eta sarea neutrala ez den bitartean, lehia-murrizketak zein lehia-distortsioak gertatuko dira, lehia aske eraginkor batek agindutakoari jarraituz funtzionatzen duen Europako Telekomunikazioen Merkatu Bakarra behingoz ezartzea galaraziz.

Laburbilduz, merkatuak behar duena ez da nagusitasunezko egoera abiapuntutzat duen egitura-arauketa, kasuan kasuko balioztatzea baizik, sarearen kudeaketan sare-emaileek trafikoa modu berean tratatzen duela egiaztatzeko, sare-neutraltasunaren printzipioa errespetatuz eta lehia eraginkorra bidegabeki ez kaltetuz. Azken batean, justifikatutako eskakizun teknikoak baino ez dira onartuko sare-trafiko kudeaketan gerta daitezkeen tratu ezberdintasunak bidezkoetzeko (52). Sare-neutraltasunaren inguruko kezkek merkatuaren lehia falta antzemarazten dute (53). Hortaz, Lehiaren zuzenbidearen ikuspuntutik, neutraltasun-printzipio hori errespetatzen ez duten praktikak beharrezkoak izan behar dira —nahi duten helburua erdiesteko, baina helburu hori lortzeko behar den baino harago ez joanez— eta justifikatuta egon behar dira, bidegabeak ez izateko.

IV. Ondorioak

Gaur egun, Europar Batasunean ez ezik, mundu osoko estatu guztietan, I+G+B estrategiak aurrera eramateko Internetaren ezinbestekotasuna eztaba daezina da. Are gehiago, sarea erabiltzeko beharrezkotasunaren inguruko eztabaida gaingiduta egoteaz gain, sarea bera neutrala izan behar dela aitortzen da; bestela, sare horretaz baliatzen diren enpresei, sare-emailearekin integratuta —edo, behintzat, horri afiliatuta— egon ezean, zail egingo zaie euren zerbitzu eta produktuak baldintza baliokideetan eskaintzea.

Sare-ematearen merkatu-segmentuan sartzeko barrerak ikusita, segmentu horretan aritzen diren enpresek ardura berezia erakutsi behar dute lotutako merkatuak bidegabeki ez ixteko: alde batetik, merkatu-segmentu horretan operadore berriak sartzeko probabilitatea eskasa da; beste alde batetik, jada presente dauden operadoreen erabiltzaileek operadorez aldatzeko probabilitatea ere oso urria izan daiteke, aldatzeko kostu natural zein estrategikoengatik. Azken horri lotuta, sare-emaileek artifizialki handitu ahal dituzte aldaketa-kostu estrategikoak, euren erabiltzaileei pentsarazteko sare-emailea aldatzeko kostuak egiatan direnak baino altuagoak direla.

(52) EUROPAKO BATZORDEA, «Net Neutrality in the EU», *Digital Agenda for EU — A Europe 2020 initiative*-en, <https://ec.europa.eu/digital-agenda/en/eu-actions>, 2015 (azken kontsulta: 2015.12.18)

(53) CARTER, K.R.; MARCUS, J.S. eta WERNICK, C., «Network neutrality: Implications for Europe... *op. cit.* (2. oin-oharrean), 56-57. or.

Dena den, sare-emaileek erakutsi beharreko ardura berezia gora-behera, telekomunikazioen merkatua Europa-mailan lehia aske eraginkorra irekitzeko, sarearen neutraltasuna bermatu behar da; beste hitzetan esanda, Europan Telekomunikazioen Merkatu Bakarra behingoz lortzeko, gakoa, sektore honen arauketa baino, Lehiaren zuzenbidea izan behar da. Estaturen telekomunikazioen barne-merkatuak arautzeari ekin zitzaion, horien liberalizazioa erdiesteko. Alabaina, Estaturen barnean liberalizatzeko prozesua arrakastatsua izan den arren, sare-emaileek lehia urratzen duten praktikak egiten dituzte, sarearen neutraltasuna errespetatu ordez, integratutako edo afiliatutako enpresaren alde bidegabeki bereizten dutelako. Urrapen horiek Lehiaren zuzenbideak aztertu eta, hala denean, zehatu behar ditu, lehiaren agintaritzak hobeto kokatuta daudelako horien inguruan ezagutzeko. Azken batean, sare-neutraltasuna lehia aske eraginkorrerako baldintza da; bestela, bai sare-emateko merkatu-segmentu horretan, bai lotutako beste merkatu-segmentuetan dauden zein egon daitezkeen operadoreak ezin izango dira lehiatu eragindako distortsioengatik.

Trabajo recibido el 15 de enero de 2016

Aceptado por el Consejo de Redacción el 22 de enero de 2016

LABURPENA: Etengabeko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzaren menpe dagoen gizarte honetan, horiek aurrera eramateko ezinbestekoa den sarearen neutraltasuna bermatu behar da; bestela, hazkunde ekonomikoa erdiesteko nahitaezko suertatzen zaigun motorraren funtzionamendua bidegabeki aztoratuko litzateke. Internetaren erabilpena handitzeak agerian utzi du komunikazio elektronikoa sarearen garrantzia, eta horren neutraltasunaren inguruko eztabaida berpiztu ere egin du, batzuetan, sarea ematen dituztenen interesak eta edukia —informazioa zein aplikazioak— ematen dituztenenak ez datozelako bat.

Ikerketa honetan, komunikazio elektronikoko Europar Batasuneko merkatua izango dugu aztergai. Horrela, merkatua lehia askera irekitzeko garaia heldu delakoan, neutrala den Interneta lortzeko betebeharra defendatuko dugu, lehiarako ibilbidean eman beharreko lehenengo pausua baino, azkena delako.

GAKO HITZAK: Sare-neutraltasuna. Lehiaren zuzenbidea. Telekomunikazioen Merkatu Bakarra. Europar Batasuneko zuzenbidea.

JEL: K21; K33

RESUMEN: Para esta sociedad dependiente del diseño incesante de políticas de Investigación, Desarrollo e Innovación, la garantía de la neutralidad en la red es imprescindible puesto que, de otro modo, éstas no podrían ser llevadas a cabo pues se impediría el correcto funcionamiento del motor que mueve el progreso económico. El crecimiento del uso de Internet ha demostrado, por un lado, la importancia de la red de comunicaciones electrónicas y, por el otro, ha reavivado el debate en torno a la neutralidad de dicha red, dado que, en ocasiones, los intereses de los proveedores de contenido —información y aplicaciones— no coinciden con los de los proveedores de red.

En este estudio vamos a analizar el mercado de las comunicaciones electrónicas en la Unión Europea. Así, consideramos que ha llegado el momento de abrir el mercado a la libre competencia; por lo tanto, defenderemos la necesidad de conseguir una Internet neutral. En definitiva, la neutralidad en la red no es el primer paso en la apertura del mercado a la libre competencia, sino el último.

PALABRAS CLAVE: Neutralidad en la red. Derecho de competencia. Mercado único de las Telecomunicaciones. Derecho de la Unión Europea.

JEL: K21; K33

ABSTRACT: Ensuring net neutrality is essential in our current society where the dependency on research, development and innovation is unremitting. Such neutrality guarantees the proper functioning of economic progress. Particularly, the growing use of the Internet has shown the importance of an electronic communications network. It has also rekindled the debate about the neutrality of the network, because sometimes the interests of content providers (applications and information) do not match those of the network providers. This article

analyzes the market of electronic communications in the European Union since it is time to open up the market to competition and get a neutral Internet. In short, net neutrality is not the first step in opening up the market to competition, but rather, the last one.

KEYWORDS: Network neutrality. Competition law. Telecommunications Single Market. European Union law.

JEL: K21; K33